

# *Egoeraren Azterketa*



*Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa*

**Nafarroako 2001-2004 etxebizitza  
planak porrot egin du**

**Ekonomia %3 hazi da**

**Eustatek behin-behinekotasun  
datuak izkutatzen ditu**

**Erregistratutako kontratuen %91  
behin-behinekoa da**

**Lehen hiruhilekoan  
17.380 lan istripu**

# Hego Euskal Herriko (\*) lan eta ekonomi egoeraren adierazleak

ADIERAZLEA	NEURRIA	AZKEN DATA	2005-I	2004-IV	2004
<b>ENPLEGUA ETA LANGABEZIA</b>					
JARDUERA TASA	%	05 I			
" 15-EBn	%	2003	70	69	70
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	KOPURUA	05 I	1.205.600		
SOLDATAKO BIZTANLERIA	KOPURUA	05 I			
ALDI BATERAKOTASUN TASA	%	05 I			
" 15-EBn	%	04 II	13,1		
BIZTANLERI LANGABETUA	KOPURUA	05 I	88.800		
LANGABEZI TASA	%	05 I	6,9		
" 15-EBn	%	05 MAR	8,1	8	8
GAZTEEN LANGABEZI TASA	%	05 I			
" 15-EBn	%	05 MAR	17,6	16,6	16,6
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA	%	05 I	8,6		
" 15-EBn	%	05 MAR	9,3	9,2	9,2
SINATURIKO KONTRATUAK	KOPURUA	05 URT-API	306.213	1.003.619	1.003.619
MUGAGABEKO KONTRATUAK	KOPURUA	05 URT-API	27.870	74.836	74.836
<b>ENPLEGU ERREGULAZIOA</b>					
ONARTURIKO FITXAK	KOPURUA	05 URT-OTS	69	90	543
ERAGINDAKO LANGILEAK	KOPURUA	05 URT-OTS	1.510	1.656	11.732
<b>LAN ISTRIPUAK</b>					
BAJA HARTZEN DUTEN LANGILEAK	KOPURUA	05 URT-MAR	17.380	14.285	62.115
HILDAKOAK ETA LARRIAK	KOPURUA	05 URT-MAR	193	176	731
<b>ESKAINNTZA ETA ESKARIA</b>					
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn	% ALD.	05 URT-MAR	-0,5	5,1	1,9
INDUSTRI JARDUERA NAFARROAn	% ALD.	04 URT-ABE	5,5	5,6	5,5
PRODUKZIO AHALMEN ERABILERA EAEn	%	04 III	77,8	78,8	
BPGa EAEn	% ALD.	05 I	2,9	3	3
BEGa NAFARROAn	% ALD.	05 I	3	3,4	3,4
BPGa ESPAINIAR ESTATUAN	% ALD.	05 I	3,3	3,2	3,1
BPGa 15-EBn	% ALD.	05 I	1,6	1,8	2,3
<b>PREZIOAK</b>					
URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN	%	05 APIRILA	3,5	2,7	3,2
" 15-EBn	%	05 APIRILA	2,1	2	2,4
* Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da. Iturriak: Eustat, Instituto de Estadística de Navarra, Eurostat, OCDE, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, INSL, INEM, INE.					
100. zbk. <b>Egoeraren Azterketa</b> 2005eko ekaina					



# Aurkibidea

## SARRERA .....3

### EGOERA SOZIAL ETA EKONOMIKOARI BURUZKO IRUZKINA.....4

1. Ekonomia 3% hazi da .....4
2. Enplegua: berriro ere metodologia aldaketa .....4
3. Eustatek ezkutatu egiten ditu behin-behinekotasunari buruzko datuak.....5
4. Enplegua Hego Euskal Herrian .....5
5. Nafarroako enpleguari buruzko aldagaiak.....6
6. Nafarroarako aldagai berriak .....6
7. Enplegu erregulazioa .....7
8. Lan istripuen kopuruak gora egin du.....7
9. Prezioen igoera ikusgarriak .....7

### GAI BEREZIA: ETXEBIZITZAREN EGOERA NAFARROAN.....8

1. Etxebizitza Nafarroan: ez dago informaziorik .....8
2. 2001-2004 etxebizitza planak porrot egin du.....8
3. Etxebizitza arloko proposamenak .....9

## ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPG	Barne Produktu Gordina
BEG	Balio Erantsi Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BJA	Biztanleria Jardueraren Arabera
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produkzio Industrialaren indizea
JII	Jarduera Industrialaren Indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
INE	Instituto Nacional de Estadística

# EGOERAREN

A Z T E R K E T A

## Sarrera

Egoeraren Azterketaren 100. zenbaki honetan urteko lehen hiruhilekoko enpleguaren eta Barne Produktu Gordinaren inguruko informazioa aztertuko dugu. Bien kalkuluan aldaketa metodologikoak eman dira, bitartean Eustat egoeraz baliatu da behin-behineko soldatapeko biztanleriaren hiruhileko informazioa emateari uzteko. Ondorioz ezinezkoa izango zaigu informazio garrantzitsu hori aztertzea zenbaki honetan. Antza denez, egin dugun salaketa eta eskaerari esker aldagai hauek hiru-hilero publikatzen jarraituko dituzte. Nafarroako 2001-2004 etxebizitza planaren porrota izango da hilabeteko gai berezia.

\* Txosten hau 2005eko maiatzaren 30ean eguneraturiko informazioarekin burutua izan da

## 1. Ekonomia %3 hazi da

Ekonomiak goranzko joerari eusten dio, eta, azken garaian bezalaxe, Hego Euskal Herriko inguruko europar herrialdeetako gainetik hazten ari da. Zehazki, Nafarroako Barne Produktu Gordina (BPG) %3 hazi zen 2003an, %3,4 2004an, eta %3 2005eko lehenengo hiruhilekoan. Grafikoan, hazkunderik hiru hilekoz hiru hileko izan duten bilakaera ikus dezakegu. Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) BPGaren %2,5eko gehikuntza izan zuen 2003an, %3koa 2004an eta %2,9koa 2005eko lehenengo hiruhilekoan. Beraz, Hego Euskal Herriko ekonomiaren hazkundera handia izan da 2005eko lehenengo hiruhilekoan, aurreko urteetakoaren antzera.

Espainiako Estatuko BPGaren metodologian aldaketa estatistikoa egon da, eta, horren eraginez, bai BPGaren zifra bai azken urteetako gehikuntza berrikusia orain arte zenbatetsitakoa baino handiagoak izan dira. Honela, Espainiako Estatuko BPGak %2,9ko igoera izan zuen 2003an, %3,1koa 2004an eta %3,3koa izan du 2005eko lehenengo hiruhilekoan.


Europar Batasunean, berriz, lehengo 15 estatu kideetako BPGa (15-EBkoa) %0,8 hazi zen 2003an, %2,3 2004an eta %1,6 2005eko lehenengo hiruhilekoan. Bestalde, 25-EBko BPGak, hau da, estatu kide berriak barne hartzen dituen Europar Batasunekoak, gehikuntza handixeagoak izan ditu, %0,9koa 2003an, %2,4koa 2004an eta %1,7koa 2005eko lehenengo hiruhilekoan, hain zuzen ere. EBko estatu kideek oso bilakaera ezberdina erakusten dute: Europako iparraldeko herrialdeek, Espainiako estatuak edo Irlandak hazkunde nabarmenak dituztelarik, herrialde indartsuenetako batzuk (hala nola Alemania, Frantzia, Holanda edo Italia) geldialdia edo atzerantzko joera nozitzen ari dira.

EAEko **Produktzio Industrialaren Indizea** %0,5 murriztu zen 2005eko urtarriletik martxora bitartean, 2004ko aldi berarekin alderatuta. Horrek aurreko urtean izandako portzentajearekiko jaitsiera adierazten du, orduan %5,1eko igoera izan baitzuen. Nafarroan, bestalde, **Jarduera Industrialaren Indizea** %5,5 hazi zen 2004an, 2003an (%5,6) egin zuen antzera, alegia.

Beraz, ekonomiaren bilakaerari dagokionez, hainbat datu kontraesankor daude, baina adie-

razle esanguratsuenak, hau da, BPGak, Hego Euskal Herriko ekonomiaren osasuna ona dela pentsarazten du.

**BPGAREN URTEARTEKO ALDAKUNTZAK.**  
2003-2005



Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea, INE, Eurostat

## 2. Enplegua: berriro ere metodologia aldaketa

2005eko lehenengo hiruhilekoan **beste metodologia-aldaketa bat** egin da, enplegua aztertzeari begira. Azken urteetan, aldaketa ugari izan dira enpleguari buruzko estatistiketan, eta, aldaketa horien ondorioz, ezinezkoa da lan merkatuak urteetan zehar izandako bilakaeraren azterketa homogeneoa egitea. Egoeraren Azterketa honetan, Hego Euskal Herriari dagokionez, 2005eko lehenengo hiruhilekoari buruzko informazioa besterik ez dugu aztertuko (aurreko aldiarekin alderatu gabe); gainera, ohi ditugunak baino aldagai gutxiago aztertuko ditugu. Nafarroaren kasuan, aldiz, orain arte aztertu ez ditugun aldagai batzuei erreparatzeko aukera ematen diguten datu berriak dauzkagu. Dena den, dirudienez, estatistika-erakunde ofizialek emandako informazio guztia behin-behinekoa da eta aldaketak izan ditzake.



### 3. Eustatek ezkutatu egiten ditu behin-behinekotasunari buruzko datuak

Metodologia-aldaketaz baliatuz, Eustatek ez ditu behin-behinekotasunari eta soldatako enpleguari buruzko hiruhileko datuak jadanik argitaratzen, inkestak egiteko prozedura bizkortu beharra argudiotzat azalduta. Hala ere, garrantzi txikiagokoak eta korapilotsuagoak diren galdera ugari utzi dituzte inkesta horietan, azaldu duten arrazoia benetakoa balitz, kendu egin zitzaizketen galderak, hain zuzen ere.

Datuak hiruhilekoz hiruhileko erakusten duteenez, EAEn behin-behinekotasuna Europar Batasuneko batez bestekoaren hirukoitza da ia, eta gazteen eta emakumeen egoera are larriagoa da hemen. Datuok urtean behin bakarrik argitaratzearen helburua behin-behinekotasunaren errealitatea ezkutatzea da, horrela ahalik eta gutxienetan hitz egin ahaliko baita horiei buruz. Behin-behinekotasunaren arazoa mundu guztiaren ahotan dabilerarik, Eustatek aldagai hori neurtzeko datuak ez argitaratzea erabaki du.

ELAk salatu egin du jendaurrean erabaki hori, eta soldatako enpleguari eta behin-behinekotasunari buruzko informazioa hiru hilerik behin argitaratzen segitzeko eskatu du, bi alderdi horiek funtsezkoak baitira lanaren egoera zehaztasunez aztertzeko. Antza denez, gure eskariaren eraginez, aurrerantzean segitu ahal izango dugu soldatako biztanleriari eta behin-behinekotasunari buruzko hiruhileko zifrak eskuratzen.

### 4. Enplegua Hego Euskal Herrian

Hego Euskal Herrian 1.205.600 lagun izan dira urteko lehenengo hiruhilekoan **lanean ibili direnak**; horietarik 708.100 (%58,7) gizonetzkoak izan dira, eta 497.500 (%41,3), emakumezkoak.

Lana sektoreka aztertzean ikus dezakegunez, zerbitzuen sektorea da lagun gehien bildu dituen, 748.500 lagun, zehazki, hau da, kopuru osoaren %62. Hurrengo sektore garrantzitsuena industria izan da, 319.100 lagun eta guztizkoaren %26,5arekin; ondoren, eraikuntza sektorea dator, 109.400 lagunekin guztizkoaren %9,1 bildu duena. Azken sektorea nekazaritza izan

da, 28.600 lagunekin, hots, lanean ibilitako pertsonen kopuru osoaren %2,4.

#### LANEAN DABILEN BIZTANLERIA SEKTOREKA. HEGO EUSKAL HERRIA, 2005EKO I. HIRUHIL.

ZERBITZUAK		INDUSTRIA		ERAIKUNTZA		NEKAZARITZA	
Kp.	%	Kp.	%	Kp.	%	Kp.	%
748.500	62	319.100	26,5	109.400	9,1	28.600	2,4

Iturriak: Eustat eta Nafarroako Estatistika Erakundea

2005eko lehenengo hiruhilekoan, **88.800 langabe** izan dira: 41.700 gizonetzko (guztizkoaren %46,9) eta 47.100 emakumezko (%53,1).

Hortaz, **langabezia-tasa** %6,9koa izan da, gizonetzkoena (%5,6) baxuxeagoa eta emakumezkoena (%8,6) altuxeagoa izanik. Oraingo honetan, ez daukagu Hego Euskal Herriko gazteen langabezia-tasa aztertu ahal izateko beharrezko informazioa.

Lanaren gaineko informazioa zenbat eta zehatzagoa izan, orduan eta handiagoa da zifrek eman dezaketenen errore-marjina estatistikoa. Hala ere, interesgarri deritzozu langabezia-tasak lurraldez lurralde aztertzeari. Horrela, langabezia-ehuneko txikiena Arabak (%3,4) izan duela ikus dezakegu, atzetik Gipuzkoa (%6,2), Nafarroa (%6,3) eta Bizkaia (%8,5) izanik.

2005eko martxoan, 15-EBko langabezia-tasa %8,1ekoa izan da, Hego Euskal Herrikoa baino 1,2 puntu altuagoa, alegia. 15-EBko gizonen langabezia-tasa (%7,1) Hego Euskal Herrikoa baino 1,5 puntu altuagoa izan da, eta emakumezkoena (%9,3) 0,7 puntu altuagoa.

#### Oraindik kontratu gehienak aldi baterakoak

2005eko urtarriletik apirilera bitarte, 306.213 lan-kontratu sinatu dira Hego Euskal Herrian, hau da, 2004ko epealdi berean baino 969 kontratu gehiago (2004an 305.244 sinatu ziren). Kontratu horietatik 278.343, hots, kontratu guztien %90,9, aldi baterakoak izan dira (2004ko aldi bereko portzentajearen antzekoa, 2004koa %91,1 izan zen eta). Aldi baterako kontratazioan jazotzen den lege-iruzur itzela agerikoa da oraindik orain, legez justifika litekeen arrazoirik gabe egiten baitira aldi baterako kontratuak.

## 5. Nafarroako enpleguari buruzko aldagaiak

Atal honetan, Hego Euskal Herriari buruz orain arte aztertu izan ditugun aldagai batzuei begiratuko diegu, baina Eustatek informazioa hiru hilerik behin argitaratzeari uzteko erabakiaren zioz, **Nafarroari** buruzko datuak besterik ez dauzkagu oraingoa.

16 eta 65 urte arteko biztanleen kolektiboaren **jarduera-tasa** %73,9koa izan da, eta altuagoa izan da gizonezkoen kasuan (%84,5) emakumezkoenean (%62,4) baino.

**Soldatako biztanleak** 210.200 izan dira Nafarroan 2005eko lehenengo hiru hilekoan: 119.400 gizonezko (soldatako biztanleriaren %56,9) eta 90.400 emakumezko (%43,1).

Horren arabera, lanean ibilitako 100 lagunetik 78 soldatakoak izan dira; portzentajea %74,1 izan da gizonen kasuan, eta %83,4 emakumeenean.

Nafarroako soldatako biztanleriaren %29,1 **aldi baterako** aritu da lanean, eta, alderdi horri dagokionez, emakumeak dira berriro ere egoera txarragoan daudenak. Zehazki, emakumezkoen behin-behinekotasun tasa %33,1ekoa izan da, gizonezkoena %26koa izan delarik. Gazteen behin-behinekotasun tasa, bestalde, %66,4koa izan da.

Bai 15-EBri bai 25-EBri erreparatuta, Nafarroako behin-behinekotasun tasak, Europakoak baino askoz altuagoak dira, bikoitza baino gehiago, hain zuzen ere. Ondoko taulan ikus daitekeen bezala, 15-EBk eta 25-EBk antzeko egoera erakusten dute mintzagai dugun alderdi honetan. Zehatz esateko, 2004ko bigarren hiru hilekoan, 15-EBko behin-behinekotasun tasa orokorra (%13,1) Nafarroakoa baino 16 puntu baxuagoa izan zen. 15-EBko gizonezkoen behin-behinekotasun tasa (%12,3) Nafarroakoena baino 13,7 puntu txikiagoa izan zen, eta emakumezkoena (%14,1), 19 puntu apalagoa; beraz, aldea handiagoa da emakumeen kasuan.

### BEHIN-BEHINEKOTASUN TASA OROKORRA ETA SEXUEN ARABERA 15-EB (2004KO II. HIRUHIL) NAFARROA (2005EKO I. HIRUHIL).

	OROKORRA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK
NAFARROA	29,1	26	33,1
25-EB	13,3	12,7	14,1
15-EB	13,1	12,3	14,1

Iturriak: Nafarroako Estatistika Erakundea eta Eurostat

## 6. Nafarroarako aldagai berriak

Metodologia-aldaketa dela eta, Nafarroako Estatistika Erakundea orain arte ematen ez zituen datu batzuk hasi da argitaratzen; atal honetan, informazio horren zati bat aztertuko dugu. Kolektibo orokorrak baino talde murritzagoak aipatuko ditugunez, kontuan izan behar dugu zifren errore-marjina estatistikoa handiagoa izan daitekeela.

Aurrerantzean, **soldatako biztanleriaren behin-behinekotasuna** sektoreka aztertu ahal izango dugu, esaterako. Ikus dezakegun bezala, alderdi horren portzentaje handiena nekazaritza sektorean dago, %68,8arekin; ondoren, eraikuntza sektorea dator, %52,4ko behin-behinekotasun tasarekin; gero, zerbitzuen sektorea dugu, %28,3arekin, eta azkenik, industria sektorea, %19,6ko behin-behinekotasunarekin.

Soldatako biztanleriaren sektorekako behin-behinekotasuna Europako zifrekin erkatzean ikusten dugunez, sektore guztien kasuan da aldagai hori handiagoa Nafarroan. 15-EBrekiko alderik txikiena, esaterako, industria sektorean ageri da (sektore horretako tasa 1,6 bider altuagoa da Nafarroan), eta alderik handiena, eraikuntza sektorean (Nafarroako behin-behinekotasuna 2,6 bider handiagoa da sektore horretan).



**BEHIN-BEHINEKOTASUNA SEKTOREKA (%).  
NAFARROA (2005EKO I. HIRUHIL.)  
ETA EUROPAKO BATASUNA  
(2004KO II. HIRUHIL.)**

	NEKAZARITZA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK	INDUSTRIA
Nafarroa	68,8	52,4	28,3	19,6
25-EB	29	20,1	13	12,7
15-EB	32,5	19,8	13	12,1

*Iturria: Nafarroako Estatistika Erakundea eta Eurostat*

**Orain, aldi baterako kontratua duten soldatako biztanleen kontratuen iraupena** ere azter dezakegu Nafarroarako. Zehazki, aldi-baterako alokairupeko biztanleriaren %29,9ak 6 eta 12 hilabete bitarteko kontratua du; %24ak iraupen zehaztugabeko kontratua, eta %19,6ak urtebetetik gorako iraupenekoa.

## **7. Enplegu erregulazioa**

2005eko urtarril eta otsail artean, enplegua erregulatzeko 69 fitxa estatistiko baimendu dira Hego Euskal Herrian, hau da 2004ko epealdi berean baino 21 gutxiago (90 fitxa baimendu ziren orduan). Fitxa horiek 1.510 langilerengan izan dute eragina, 2004an baino 146 langile gutxiagorengan, alegia.

## **8. Lan istripuen kopuruak gora egin du**

2005eko lehenengo hiruhilekoan, 17.380 lan-istripu jazo dira Hego Euskal Herrian, 2004ko epealdi berean (14.285) baino 3.095 gehiago, hain zuzen ere. 2005eko lehenengo hiru hilabeteetako istripuetatik 193 larriak edo hilgarriak izan dira, 2004an (176) baino 17 gehiago. Beraz, 2005eko lehenengo hiruhilekoan, **bai lan-istripuen kopuru orokorrak bai istripu larrien edo hilgarrien kopuruak gora egin dute**, 2004koen aldean.

## **9. Prezioen igoera ikusgarriak**

Apirilean, prezioek 1,4 puntuko igoera izan dute. Horrela, azken hamabi hilabeteetan, %3,5 hazi dira prezioak. Lehenengo lauhilekoaren amaieran, beraz, prezioen urtearteko igoerak 1,5 puntutan gainditu ditu Espainiako gobernuaren aurtengo aurreikuspenak. Urtearteko oraingo KPIa iazko apirilekoa baino 0,8 puntu

handiagoa izateak berretsi egiten du prezioen goranzko joera.

Bestalde, Espainiako Estatuan Europako batez bestekoen oso gaintek hazten dira prezioak, Europako prezio-gehikuntza %2 ingurukoa delarik.

Espainiako gobernuak prezioen inguruan egingandako aurreikuspenen porrota urtero-urtero gertatzen ari da azken garaietan, baina, hala eta guztiz ere, gobernuak ez ditu aurreikuspenok aldatzen. Horren ondorioz, murriztu egiten dira kolektiborik ahulenen diru-sarrerak, Efektu Anitzeko Errenta Adierazle Publiko (IPREM) berriaren arabera finkatzen diren pentsioak edo errentak jasotzen dituzten pertsonenen diru-sarrerak, adibidez.

ELAk berriro adierazten du hitzarmen kolektiboen negoziazioan, gobernuak aurreikusitako KPIaren ordean, aurreko urtealdiko benetako KPIa erabiltzearen komenigarritasuna.

# Gai berezia: Etxebizitzaren egoera Nafarroan

1

## Etxebizitza Nafarroan: ez dago informaziorik

Nafarroako Gobernuak Etxebizitza Sailak 2001eko ekitaldian argitaratu zuen etxebizitzari buruzko azken azterlana, 2001-2004 Etxebizitza Plana abian jartzeaz batera. Egoera guztiz onartezina da, batez ere orain, etxebizitzaren lorpena Nafarroako gizartearen zati handi batentzat benetako arazoa delarik, bereziki egoerarik ahulena nozitzen duten kolektiboentzat (hala nola gazte, emakume eta etorkinentzat). Hala ere, Nafarroako Gobernuak baieztatutakoaren arabera, etxebizitza pribaturako irispidea hain da ezinezkoa, ezen aztertu ere ez baitute egin nahi arazo hori. Etxebizitza babestuak eraikitzeak nafar guztiei etxea lortzeko aukera emango diela uste ote dute?

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak "Etxebizitza Beharra eta Eskaria EAEn" izenburuko azterlana argitaratzen du urtero, eta "Eskaintza Inmobiliaria" deritzona hiru hilerik behin, horrela etxebizitzaren arloan erkidegoko egoera eta bilakaera aztertzeko aukera emanez. Arazoa nolabaiteko aldizkakotasunez azter daitekeela frogatzen du horrek, behintzat.

Hori dela eta, arazo honi duen garrantzia emateko eta etxebizitzaren egoera behar besteko zehaztasunez ezagutu ahal izateko aldizkako azterlanak egiteko eskatzen diegu Nafarroako erakundeei.

2

## 2001-2004 etxebizitza planak porrot egin du

Nafarroako Gobernuak 2001ean eman zion hasiera 2001-2004 Etxebizitza Planari, 4 ekitaldi horietan babespeko 10.000 etxebizitza eraikitzeko asmoz. 2004rako, 2.750 etxebizitza babestu eraikitzeke helburua finkatu zuen, baina 645 besterik ez ziren eraiki, hau da, Etxebizitza Planean zehaztutakoaren %23,5. Horixe izan da plana gutxien konplitu den urtea, izan ere 2001ean proposatutako etxebizitza babestuen %72, 2002an %59,1 eta 2003an %35,4 eraiki baitziren. Beraz, planak denboran aurrera egin ahala, gero eta gutxiago bete da etxebizitza babestuak eraikitzeke ezarritako helburua.

Beraz, planean zehaztutako helburuak oso urrun geratu dira betetzetik. Aurreikusitako 4 urteetan, 4.594 etxebizitza baino ez dira eraiki; horren arabera, planaren konplimendu maila %45,9koa besterik ez da izan, guztira.

### NAFARROAKO 2001-2004 ETXEBIZITZA PLANAREN KONPLIMENDUA.

ETXEBIZ. BABESTUAK	2001	2002	2003	2004	GUZTIRA
AURREIKUSIAK	2.250	2.350	2.650	2.750	10.000
AMAITUTAKOAK	1.621	1.390	938	645	4.594
ERAIKIAK	%72,0	%59,1	%35,4	%23,5	%45,9

*Iturria: Nafarroako Gobernuko Etxebizitza Departamentua*





### 3

## Etxebizitza arloko proposamenak

Etxebizitza duina lortzea instituzio publikoek bermatu behar duten eskubidea da.

### 1. Etxebizitzako gastu publikoa handitzea, babespeko etxebizitza gehiago eskaintzeko

Horixe da egin nahi dugun lehen aldarrikapena, izan ere, etxebizitzarako behar besteko zuzkidura publikorik ez badago, ezinezkoa delako arlo horretan jarduketa egokirik gauzatzetik. Egitate hori etxebizitzaren egoera hobetzeko borondate politikoaren menpe dago.

ELAk osasun eta hezkuntza arloetako eskubide unibertsaletan gastu publiko handiagoak egin beharra aldarrikatzen du behin eta berriz, arlo horietako alderdi batzuetan defizit nabariak ditugu eta. Etxebizitza edukitzeko eskubidea ere oinarrizko eskubide unibertsala da, eta hartakotzat bermatu behar da. Atal horretara, aitzitik, osasunera edo hezkuntzara baino askoz baliabide publiko gutxiago bideratzen dira. Nafarroan, zehazki, 2005ean, etxebizitzan 65,9 milioi euro gastatzea aurreikusi da, hots, BPGaren %0,5. Portzentaje hori 2004koa baino 0,1 puntu handiagoa da, eta 2002ko eta 2003ko BPGaren ehunekoak baino 0,2 puntu altuagoa. Hala ere, etxebizitzaren arazo larria konpontzeko behar den gastua baino askoz urriagoa da.

### ETXEBIZITZAKO GASTU PUBLIKOAREN PISUA BESTE ARLO BATZUETAKOAREKIN ALDERATUTA. NAFARROA ETA EAE, 2005.

	BPG % Nafarroan	BPG % EAEn
Etxebizitza	0,5	0,3
Osasuna	4,7	4,3
Hezkuntza	3,2	3,6

Iturria: Nafarroako eta EAeko 2005erako aurrekontu-proiektuak

### 2. Etxebizitza babestuek titulartasun publikokoak izan behar dute

Onartezina da etxebizitza babestuak titulartasun pribatukoak bihurtzea eta beraiekin espekulatzeko aukera ematea.

### 3. Hutsik dauden etxebizitzak merkaturatzea

2001ean, 33.487 etxebizitza zeuden hutsik Nafarroan, etxebizitza guztien %13, alegia (EAEn, 86.285 zeuden hutsik, hau da, %9,7). Gaur egungo egoera ikusita, onartu ezinezko luxua da etxebizitzak hutsik edukitzea, eta ezinbestekoa da instituzioek esku hartzea.

Arlo horretan emaitzak lortzeko ezar daitezkeen neurrietako bat bigarren etxebizitza zerga-petzea da, batez ere etxebizitza hori hutsik baldin badago. Etxebizitza hutsik edukitzeko gogoia desagerrarazteko bezain garrantzitsua izan beharko luke zerga horrek.

### 4. Alokairua: etxebizitza babestuak eskaintzeko modurik egokiena eta bidezkoena.

Etxebizitza babestuak alokairuan eskaini behar-ko lirateke, izan ere, aukera horrek, etxebizitzaren parke publikoa sortzea ahalbidetzeaz gain, etxebizitza babestuak beti horrelako etxebizitzak eskuratzeko beharrezko baldintzak betetzen dituzten biztanleen eskuetan daudela bermatzen du, eta ez du hainbesteko eztabaidarik pizten etxebizitza babestua lortu dutenen eta lortzerik izan ez dutenen artean.

Alokatzen diren etxebizitza babestuen kopurua nabarmenki handitu bada ere, Nafarroan, 2004an, amaitutako etxebizitza babestuen %6,3 baino ez zen alokatzekoa izan, eta 2003an, %19,6. Zifra horiek argi erakusten dute Etxebizitza Sailak jabetzaren alde eta alokairuaren kaltetan egiten duen apustua.

### 5. Esku hartze publikoa gastu publikoaren bidez

Gastu fiskalak zergen zioz biltzeke geratzen diren diru kopuruak dira, eta ez dira progresiboak, ez diotelako biztanleria behartsuenari onurarik ekartzen. Ildo horretan, bidezkoagoa litzateke kopuru horiek biltzea eta gastu publiko handiagoa egitera bideratzea, batez ere, gizarte-gastura.

Etxebizitza arloko zerga-arintzeak (124 milioi euro) etxebizitzako gastu publikoaren bikoitza dira ia (65,9 milioi euro).

### **6. Zozketa publikoa: etxebizitza babestuak eskaintzeko derrigorrezkoa.**

Baremoaz gain, babespeko etxebizitza guzti-guztiak notario publikoaren aurrean egindako zozketa bidez esleitu beharko lirateke. Beharrezkoak direnak beste etxebizitza babestu eraikitzen ez denez, eskaintzen direnak zozketa publiko bidez esleitu beharko lirateke, irregulartasun oro saihesteko.

Gizarte-bidezketasunaren eta berdintasunaren printzipioarekin bat, erregistro bakarra egon beharko luke, etxebizitza babestuak lortu nahi dituztenek izena emateko.

### **7. Eraikuntza segurua, ekologikoa eta bidezkoa**

Etxebizitzaren eraikuntzan, segurtasuna eta lan-osasuna bermatzeko neurri guztiak bete behar dira. Izan ere, Hego Euskal Herrian lanean dabiren biztanleriaren %8,8ak eraikuntza sektorean diharduelarik, lan-istripuen %19,9a gertatzen baita sektore horretan.

Etxebizitzak eraikitzeko kontrata eginez gero, zeregin bakarra garatzerakoan, azpikontrata bakarrari azpikontratatzeko aukera baino ez litzateke eman beharko, kateko azpikontratazioa mugatzeko. Horrez gain, azpiegitura horretan arituko diren langile guztiek lan-arriskuen prebentzioaren gaineko prestakuntza/trebakuntza izatea, sustatzaileak obran bertan segurtasuna jagoteko arduradun bat izatea eta zenbaketa orokorrean langilearentzat onuragarriena den eraikuntzako hitzarmena aplikatzea exijitu beharko litzateke.

Administrazioak arkitektura bioklimatikoa eta ekologikoa sustatu beharko luke etxebizitzaren eraikuntzan.

### **8. Beste alderdi batzuk**

\* Higiezinaren merkatu publiko zein pribatuan, gardentasun handiagoa behar da.

\* Aurrezki Kutxek, finantza-erakunde garrantzitsuak diren eta instituzio publikoen kontrolpean dauden aldetik, Gizarte Ekintza gehiago egin beharko litzukete etxebizitzaren arloan.